

BEGOÑAKO AMATXUREN IRUDIA.

Zergaitik tinkatu zan Gorbeia mendian Gurutze andia?

Leon XIII Aita Santuak XX gizaldiaren asieran Kristo Eroslearen maitasuna ospatu ta FEDEA indartzeko, kristau erriko mendi gañetan Gurutzea ezartzea aolkatu eban.

Su ta gar onartu eban orrelako aolkua, Juan Barolome, Zeanuriko Parrokoak Zigoitiako arzi-prestea Jose M^a Urretxakin batera eta talde bat osatu eban Gorbeiaiko tontorrean Gurutzea andi bat erakitzeke asmoagaz.

Asmo ori egi biurtu ta egitasmoa betetako Casto Zabala, elorriotar arkitektoa aukeratu eban.

Gurutzea bera Lutxana (Barakaldo) auzoan egin eban Serapio Goikotxearen lantegian, Udalerriko alkatea zanarenean.

Andik, trenes, Izarraraño garraiatu eta ortik gurdietan bizilagunek igo eban goraño 14 ordu luzatu zan bidaiian.

1.901-07-16. Lenengo atxurkadak, atxur barriekaz emonda, tinkatzen asi zan lenengo gurutzea. Lau illebeteko lan ostean(1.901-11-12) bedein-katu zan 33 m. luzeko Gurutzea, Kristoren 33 urteak gogoratzuz.

Asierako egunean bildu ziran artzaiak igarri eban denbora gitxirako izango zala. Eta alantxe gertatu zan, Gurutzea jauzi zan plaust egiñez. Aldamineko, Bizkai aldeko anka ausi jakon.

Bigarren gurutze bat eraiki bear izan eban urte bi geroago baña au be aizeteak lurrera bota eban.

Irugarrena gaur egungoa da. Lutxana toki berean egindakoa eta gitxienez 1.912koa dana. 17 metro baño zeozer geiago dauka gurutzeak, aurreko baño apalagoa.



Ondorengo urteetan orientazio maia(1931) Gazteizko mendi talde batek bertan ipiñi eban eta Begoñako Andra Mariaren irudia Baskonia mendi taldeak geitu eban azkenean.

*JASOTAKOA.

Berrogei bat urte Gorbei mendira igon nebala lagun batzuekin. Lañotsu egoan oi danez. Artzai bat aurkitu genduan eta zuzen ginjoazen itaun geuntson eta erantzun euskun erderaz :-“todo seguido hasta encontrar”

**BARRI TXARRA.

2009en ekañako 17n españatar militar talde batek, jarduera ostean, espainiako ikurriñagaz estaldu eban Kurutzea.

Abertzaleen asarre bizia sortu eban ekintza onek kanpotarren zapalketa lez sekulako protestak agertuaz. Zentzu onegaz ikusten dogu urrengo ezizen paperak erderaz dioñozkuna:

BEGOÑAKO AMAREN (AMATXUREN) IRUDIA GORBEIAN

1962 urtearen amaieran garrantzi andiko ekimen bat osatutea erabagi eban BMTak.

CEVAS taldeak Gaztelugatxeko uretan Begoñako Amaren irudia tronatu zala jakin ostean Gorbeako gallurera eroatea pentsatu eban. Orretarako Zeanuriko udaletxearen baimenaz sutsu azkar ekin eutsoen lanari.

Larrea arkitektoari eskatu eutsoen A.Begoñako iduria landu egiala Ontoriako arriaz.

Gorako luzeran 40 kg eta 6.000 pezetako kostuan. Lan ori amaituta Ekainean ezartzeko onartu zan.

Esandako egunerako 600 kg arriena ta 30 kg metalena bearrezko izan ziran Ama Birjiñare irudiaren zutikakoaz lotu al izateko. Material guzti au 1963 ko ekañaren 18 bertakotu zan zaletu batzuen artean.

Juan Astondoa artzaiñak Egiriñaotik asita lepoan igon eban tontorreraño.

1966an Ama Birjiñaren eta Umearen buruak kenduta desagertu ziran.

Barri txar au jakin ostean tupikizko irudiaren konpoketarako askoren diru laguntza batu zan, geienbat Espumosos Gorbeak 28.000 pezeta emonaz.

Barriztea ospatu zan egunean 2.000 Gorbea inguruko mendizaleak bildu ei ziran Amabirjiñaren ondoan.

Or dirau Begoñako Amaren irudiak 17 mko kurutzearen babesean.

Guztiok aituten dogu Gorbei Mendiko Kurutzzea. Gitxitan, ostera, gogoratuten dogu kurutzearen oñetan dagoan Andra Mariaren irudia. Zorionez sarritan ikusi daiteke inguruan dabilzen mendizaleak ederki orniturik.



GAZTELUGATXEKO SAN JUAN URPEAN DAGON BEGOÑAKO AMA BIRJIÑAREN IRUDIA

1963 ko iraillaren 15 ean Bizkaiko Zaindaria dan Begoñako Ama Birjiña urpean tronuratu zan, Kantauri itsasoan. Ekimen ori Bizkaiko Urpeko Jardueren Zentro Txangozaleak (CEVAS) antolatu eban. Ekitaldi au gertaera adiezgarri eta garrantzitsua izan zan bere garaian, ez bakarrik erlijiosoa, baita errikoa be.

Bere ezaugarriak kontuan izanda, Genobako San Fructuosoko murgilduta dagoan Amildegietako Kristoren irudiarekin batera, onako irudi au munduko andienetarikotzat artuta dago.

Ama Birjiñaren erreproduzioa Joakin Lukarini eskultoreana dogu. Onek Deustun dagoan "El Tigre" deituriko etxebixitzan aurkitzen dan eskultura egin eban, Bilboko

eraikuntza adierazgarriena bat dana.

Begoñako Ama Birjiñak altueraz 1,20 m. neurtzen dau eta oiña 47x30 zm-koa da. Au 55x46 cm. Neurtzen dauan plataforma baten ganean kokatuta dago bere pisua 198 kg-koa da eta berunez beteta dagoenez 850 kg.ra eltzen da. Irudia 12 metro sakonetera tronuratu zan urpekaretik ikusi al izateko asmoarekin; orregaitik, itsasberan arazorik gabe ikus daiteke.

Tronuratzek 6 urte bete zituenean, Bermeo-Bakio errepidean ekintza au gogoratzen dauen Monolito bat ipiñi zan. Itsasoan murgildurik dagon Ama Birjiña ikusteko oso gaxa zanez eta murgilduta araeltzeko be erreza ez zanez, 25 urte igaro ostean, irudiaren

kopia bat egin zan eta Bermeoko Aita Frantziskotarren eleizan ezarri zan. Beraz orain orikus daikegu.

CEBAS taldeak eukan ilusioa errealitate egin zanetik, 50 urte beteko dira jada. Ilusio ori Ama Birjiñaran irudi bat tronuratzek zan, San Juan Gastelugatxe itsas azpiko tronurorretatik, itsazpekari ta arrantzale guztiak babestu egiazan.

Begiratokian ipiñitako monolitoa, 1912 ko galarrenean ilziran 143 arrantzaleen (euretatik 116 bemeotarrak) oroi-garria da.

Ekainaren 12 an CEVAS taldeak Begoñako Amaren irudiaren kokapena seinalatu dau itsaso ondoan, Gastelugatxe San Juan inguruan, eta boia bat ipiñi dau bertan.

